

Goi

Goierritarra aldizkaria

395 zenbakia 2011ko otsailak 11



**BEALAK
BEASAINGO
LASTERKARIAK**

„beste
25 urte
Gutxienez

ZORTIONAK 25 urte

GAZTETXEA

ORDIZIAKO GAZTETXEA

25

**URTEZ
GAZTEEN
BILGUNE**



Betaurrekoak eta eguzkitako betaurrekoak

%50
merkeago

ARGI
OPTIKA

EM
WE

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo EXTÉ ROMEO GIGI

efektone



suquia

Kale Nagusia, 10
TEL.: 943 882 300 **ORDIZIA**
suquia@suquiahogar.com

Nafarroa Etorbidea, 16
TEL.: 943 884 375 **BEASAIN**
suquiacocinas.e@suquiahogar.com

www.suquiahogar.com



sukaldeak eta etxetresna elektrikoak



GOIERRIKO hitza info

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	



Inaki Apalategi

Badiat aspaldian galdera bat buruan bueltaka: guretzat jasangarria al duk jasangarritasuna? Kontsumo gizartearen eroso bizi gaituk hi eta ni, baina kostua zein den, eta jasangarria den ahazten zaiguk maiz, edo ez diagu gogoratu nahi.

1841, Bolueta. Euskal Herriko lehenengo kokezko labe garaia martxan. Egunean 12 orduz lan eginez, urtean 1.000 pezeta (6€) irabazteko.

Francisco de Urrazuk, kontadoreak, urtean 12.000 pezetako (72€) soldata zian, baina ez huan lantokiko akzioen partaide. 11 akziodun hituan, bakoitzak 7.000 pezeta (42€) inguru ezarri zizkian inbertsio gisan.

1919. 8 orduko lan eguna ontzat eman zitean. Ez nauk handik honako aldaketak errepasatzen hasiko, denok zekiagu gutxi gorabehera nolakoa izan den aldaketa. Gaur egun Euskal Herriko enpresa mordo batek zeukak urrezko Qa, ISO ziurtagiri bat baino gehiago, legez kanpokoa duk langile bat egunean 12 orduz lanean jardutera behartzea, eta abar luze bat.

Gaur egun hemen dena garbi, txukun, ondo produzi-

Hemen ilegalak izango hituzkeen

baldintzetan ekoiztutako produktuek ez al

liketek hemen ere ilegalak izan behar?

tzen (omen) diagu; gero eta gutxiago produzitu ere bai. Gero eta enpresa gehiagok irekitzen dizkitez filialak Asian edota Hegoamerikan. Bazekiagu han zein baldintzetan egiten duten lan, asko hemengo 1841eko baldintzatar ere ez dituk iristen; gero produktua inportatu, etiketak jarri edo muntatu, eta gora Qak eta \$/€ak. Hain giza eskubidezale garen gizarte honetan, Gasteizen 12 orduko lana ordua €rdi ordaintzerik onartuko ez genukeen honetan, denok umeen esplotazioaren aurka gauden honetan, denok modu horretan ekoiztutako produktuak zerabilzkiagu inguruan.

Ez nauk ni ezinezko iraultzetan hasiko, baina... hemen ilegalak izango hituzkeen baldintzetan ekoiztutako produktuek ez al liketek hemen ere ilegalak izan behar?



Aitor Sarriegi

Noski baietz. Eta denda txikitian erosi behar genikek, eta baldintza egokietan bizi/sakrifikatutako animaliak jan, edo animaliarik jan ez... ipurdian denok zuloa. Orain arte gure bizimaila jasangarria izan badek hankapera begirutzen ausartu ez garelako izan dek. Balantzaren goialdean egoitea tokatu zaiguk. Bizi garen planetako %10 aberatsenen artean gaudek eta futbolariak begira bizi gaituk. Kontsumo-gizartearen seme-alabontzat ordea, kontzientziari kosk egin gabe gure bizimaila zenbat jaisteko gauden prest, hori dek gakoa.

Pentsatu izan diat balantza oker horretan, baina eguneroko kontsumo-ohituretan dugun desoreka ez dek txikiagoa. Hau idazten ari naizen unean bertan Ikastola eta gainerako ikastetxeak matrikulazio-kanpainen gaudek/zeudek buru-belarri. Jende askori entzuten zioat garestia dela umea eskolara bidaltzea, gure garaian orain baino

Orain arte gure bizimaila jasangarria

izan badek hankapera begirutzen

ausartu ez garelako izan dek.

kuota altuagoak izan arren (eta ez nauk proportzioan ari, proportzioan balitz batek baino gehiagok ez likek umea eskolara bidaliko). Pangarik ez, baina jantokia eta zaintzaila nahi dizkiagu 4 euro ordainduta, eskola-libruak doan... eta hori guztia guk lan egiteko. Eta lan, zertarako eta zerbitzu horiek guztiak eta gure 10 urteko soldata balio duten etxeak ordaintzeko. Europako interneterako sarbide exkaxena diagu abiadura/prezioa kontuan izanik, eta erreparorik gabe ordaintzen dizkiagu hilero 60 euro. Baina hezkuntza... garestia dek.

Asko estimatzen dudana pertsona batek askotan esaten dik gu izango garela gure gurasoak baino hobeto biziko garen azken belaunaldia. Zorionekoak gu. Datozenak erruki dizkiat.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behe
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

XXI. mendeak bigarren deskolonizazioarena behar du izan, herrialde horiek euren nahierara antolatuko diren mendea izan beharko luke.



Jon Ordoñez

Bigarren deskolonizazioa

Gogoan ditut abenduan protestak hasi zireneko egunak; Tunisian eta Aljerian batik bat. Elikagaien garestitzeak eraginda atera omen ziren lehen egun horietan kalera bi herrialde arabiar horietako herritarrak. Ez ziren, ordea, elikagaiak garesti ordaintzen zituzten gauza bakarrak. Oporretarako leku izan ditugu azken urteetan Mediterraneo hegoaldeko herrialdeak, baina hain gertu izanik, hain urrun bizitzen jarraitzen dugu. Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko mendetako borrokaren zatiketaren ondorio da Anthony Pagden Kaliforniako Unibertsitateko historialariaren arabera, eta horrela dela pentsatzeak beldurra ere ematen du. Zer zuten greziarrek persiarren aurka, eta zergatik ditut nik aurreiritziak Marokoko, Libiako edo Irango herritarrekiko?

Errege, presidente eta lehen ministro zirenak diktadoreak dira orain. Guk ez genekien hori; ez genekien abendu erdialdean bere buruari su eman zion hori fruta saltzaile xume bat zela, eta bere fruta saltoki ibiltaria zorraz ezin zituelako ordaindu galtzear zuela. Ez genekien, edo ez genuen jakin nahi izan, herrialde arabiarretan egonkortasuna atxilotetekin ordaintzen dutela, aurretik egositako bakea askatasun kilo eta erdiarekin erosten dela.

XX. mendea Asian eta Afrikan deskolonizazioaren mendea izan zela esan ohi da. Independentzia aldarrikatu zuten herrialdeek, ordea, ez zuten erabat hautsi Mendebaldeko (eta Iparraldeko) herrialdeekiko menpekotasuna. Ekonomikoki eta ideologikoki Europako herrialdeak eta Ameriketako Estatu Batuak jarri zaizkie ikur, baina Estatua antolatzeke modelo horrek teiltatzen zuen zuloa, eta itoginen eraginez beheko solairuetan daudenak eskuak astintzen eta aldarmioak altxatzen hasi dira, ura lepora iritsi zaienean. Arcadi Oliveres Bartzelonako Unibertsitateko katedradunak dio (Youtuben ikus daiteke, 'El origen de las migraciones modernas' izeneko bi

bideoetan) Afrikako herrialde zenbaitzuetako agintariek Europako banku eta konpainietan dutela euren herritarrei lapurtutako dirutza, eta Europako gobernuak esanetarako dituztela horregatik. Oliveresen hitzetan herrialde aberatsetatik herrialde pobreetara garapenerako bideratzen den dirua baino sei aldiz gehiago etortzen da bide horretatik.

XX. mendeetako deskolonizazio prozesuak erdizkakoak izan ziren. Egia da kolonoak joan zirela baina atzean hainbat desoreka utziko zituen ereduak geratu zen, eta azken urteetan agintari berriek aurrekoen funtzioa betetzen ari dira. Horregatik XXI. mendeak bigarren deskolonizazioarena behar du izan, herrialde horiek euren nahierara antolatuko diren mendea izan beharko luke. Demokraziari euren ekarpena egiteko garaia heldu zaie, eta begiralearena egitea egokitzen zaie orain Mendebaldeko herrialdeei, zaintzailearen rola hartu gabe. Azken finean hemen ere demokrazia gure modura prestatu dugu, hirugarren mundua osagai hartuta, neoliberal etiketa gehituta. Gai al gara onartzeko Egipton, turisten ikuspegitik ikusita kaosa nagusi den herrialdean, erresistentzia baketsu eta eredugarri bat antolatzeke gu baino gaitasun handiagoa dutela?

Demokraziak eskertuko du beste herrialde batzuen ekarpena, lezioa, azken finean horixe baita bere izana, herritarren parte-hartzea, eta demokrazia zaharretako herritarrek ere zer ikasi izango dugu. Bigarren deskolonizazioa hasi da Asian eta Afrikan, eta mundua bira arazten duen ardatza mugitzen ari da. Inor ez da joaten jada munduko herrialde boteretsuenen goi-bileretara Txinari zer egin behar duen esatera, eta herrialde horretan giza-eskubideen urraketak ez zaizkigu iruditzen AEBetan edo Israelen egiten direnak baino larriagoak; aurrez aurre negoziatzera eta euren mesedearen bila joaten dira potentzia zaharrak Txinarengana.

Denetik (XLVI)

Maizpide euskaltegia

Kulerotan eta barruko arropan etorri beharko dute saltokira!

Duela gutxi, saltoki bateko eskaintza berezia "aprobetxatu" ahal izateko, erosleak izenburuan dioen bezala joan behar zuela entzun genuen irratan. Ideia bitxiari gehiegi erreparatu gabe, eta ohi dugun moduan, guk barruko arropan horri helduko diogu. Eta zergatik? Bada, aukeran, hori adierazteko modu txukunagoak izan badirelako! Bakarren batek barruko arropatan beharko lukeela ere pentsatuko du, baina ondorengo adibideak irakurri eta gero, berehala konturatuko gara ia erdi ahazturik ditugun esamolde dotore askoak dituela gure euskarak:

- ✓ **Kulerotan edota barruko arropa hutsean etorri beharko dute saltokira. (egokia)**
- ✓ **Hi, Anjel, alkandora hutsean etortzen babaiz, berriz ere harrapatuko duk burutik beberakoa, dedio! (egokia)**
- ✓ **Uda izan, negua izan, kamiseta (elastiko) hutsean ibiltzen da gure aitona Fermin! (egokia)**

Oraindik / Artean

Ez ote dugu beti "oraindik" erabiltzen?

Oraindik: orain aldi erabiliko dugu.

- ✓ **Bost urte falta zaizkio oraindik gure Enkarniri erretiroa hartzeko. (egokia)**

Artean: lehen aldi erabiliko dugu.

- ✓ **Gure Enkarnik, 14 urte zituenean, artean ume mokoa zenean, mutil asko zituen atzetik. (egokia)**
- ... baina baita geroaldirako ere:
- ✓ **Igandean, artean bukatu gabe izango dut txostena, baina astearterako pronto izango dut! (egokia)**

Honezkero / Dagoeneko

Nahastu egiten ditugu, eta ez dira gauza bera!

Honezkero: ziurtatu gabeko ustea adierazteko erabiliko dugu.

- ✓ **Semea eta andregaia orain dela bost ordu abiatu dira Beasaindik Madrilera. Honezkero ban izango dira (bala uste dugu). (egokia)**

Dagoeneko: Kontu jakina dugu, frogatutakoa! Haridura adierazten du.

- ✓ **Semea zen, Maritxu! Dagoeneko Madrilén direla bera eta andregaia! Hiru ordu ere ez dira pasa-eta! Jesus, Maria eta Joxe! Martxa bonetan gida-baimenik gabe geratuko da! (egokia)**

Lehen aldi, erabil dezagun **ordurako**:

- ✓ **Arratsaldeko zortziak eta bost ziren dendara deitu nuenean, baina ordurako etxerako bidean izango ziren langileak. (egokia)**



Honezkero bi kilo odolki egiteko adina odol izango du Lupe erizainak!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Barruko arropa hutsean etorri... eta lehenengo ehun pertsonak jantzita aterako omen gaitun dendatik! Egia ote, Inaxi?
2. Franco jenerala hil zenean, oraindik Beasaingo Alkartasuna Lizeoan hasi gabe geunden.

OHARRA: Bigarrena ez da zuzena! Artean hasi gabe geunden beharko luke!



kutxa

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albistea eta informazioaren haritik, entretenimendutik, gertukotik, sakonetik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hiztun komunitateak bere burua euskaraz isaltua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina. Ez da hau ukatuko duenik eta hala ebatzen da behin eta berriz erakunde publiko eta alderdi politiko gehienen euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburutan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohituta gaude zailtasunean jarduten, gure hizkuntzaren izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari dira ixten munduan, hedabide historikoak, ospetsuak, gureen aldean handi eta indartsuak... Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahalko diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoa goa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerio soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzera gatoz.

Hitzak ez ezik, editorial bateratu hau 60 komunikabidek baino gehiagok argitaratu dute:



Ordiziako Gaztetxea

25 urtez, Ordiziako eta Goierriko gazteen bilgune eta eragile

Duela 25 urtetik, garai bateko mediku-etxean dago Gaztetxea Ordizian. Gazte belaunaldi ugariaren elkarleku eta topaleku izan da Gaztetxea. Ekimen eta dinamika ezberdinak eraman izan dituzte aurrera urte hauetan guztietan, askotan oztopo bat baino gehiago gaindituta. 25 urteotako historiaren errepasoa egiteko, 6 lagun eta 4 belaunaldi elkartu ditugu, Gaztetzeko sukaldean.



Ez dira asko 25 urte bete dituzten Gaztetxeak. Ordiziakoa da horietako bat. Ordizian, belaunaldiz belaunaldi eutsi diote Gazteteare. Gazte asko murgildu izan da Gaztetearen dinamikan. Gorka Garmendia, Eneko Gonzalez, Aitor Gartzia, Urko Ruiz de Apodaka, Uxue Urzelai eta Jon Arizmendi dira horietako batzuk. Bakoitzak, norberari egokitu izan zaion garaiari buruzko lekukotasunak kontatu dizkigute. Beteranoenak, Gorka Garmendiak kontatu dizkigu Gaztetearen lehenengo urteak, lokala lortzeko gora-beherak.

Mediku-etxea, Gaztetxea

Duela 25 urte, herriko mediku-etxea hutsik gelditu zenean hasi zen Ordiziako Gaztetearen historia. European eta Euskal Herrian Gazteteen mugimendua zabalduz ari zen garaia zen. Gaztetxea okupazioarekin lotu izan bada ere, Ordizian, ez zen etxea okupatu beharrik, duela 25 urte, Udalak eman zien mediku-etxea era-

biltzeko baimena. Gorka Garmendiak gogoratu duenez, horretan garrantzia handia eduki zuen herrian Gazte Asanblada indartsua egoteak. "Ordizian, 150 gazte biltzera iritsi ginen, Santa Anan, lokalak eskatzeko. Mediku etxea libratu zenean, zirikatu egin genuen Udala eta emanaraztea lortu genuen. Zorte hori eduki genuen. Indartsu zegoen Gazte Asanblada eta zortea izan genuen etxea lortzean. Lan asko egin genuen". AJO izena zuen orduko Gazte Asanbladak, Asociacion de Jovenes de Ordizia.

Mediku-etxea erabat husterako sartu ziren gazteak Gaztetea. Larrialdien zerbi-

tzua zegoen artean beheko solairuan. Hiru hilabeteen, barrutik etxea bota eta auzolanean eraiki zuten Gaztetxea. "Izugarritzko obra egin genuen, auzolanean. Elektrizistak, igeltseroak... lan handia egin genuen. Udaleko aparajedorekin oso giro onean aritu ginen", gaineratu du ordiziarrek.

Antolaketa

Obrarik nagusia eginda, berehala hasi ziren gazteak lanean. Hori bai, lehenengo beroaldia pasatuta, "hasieran biltzera ginen 150 lagun horietatik, 40 bat geldituko ginen. Baina ekintza eta dinamika politak zeuden". Pixkanaka,

Goierriko herri mugimenduentzat erreferentziatzeko leku bilakatu zen Ordiziako Gaztetxea. "Arlote Irratia etorri zen Gaztetea. Ordiziako kaleak gazte betetzen ziren asteburuan eta Goierriko herri mugimendu guztia nahastu zen. Ez zegoen beste gazteterik eta dinamika polita sortu zen Ordizian. Lokala herri mugimendu askok erabili izan zuen".

Beti leku berean egon da Gaztetxea Ordizian. "Betiz izan ditugu zurrumurruak, lokala kenduko digutela-eta. Baina sekula ere ez da ezer gertatu", gaineratu du Urzelai.

1991. urtean dena den, "ezbeharra" izan zuten: erre egin zuten Gaztetxea. Garmendiak ez du oso gogoko Gaztetearen kapitulu hori, drogarekin lotu nahi izan baitzen Gaztetxea (garai hartako egunkarietako kronikak dira horren lekuko) eta Eneko Gonzalezek azaldu digu: "Arlote Irratia ixiltzea zen helburua. Irratiko hainbat tresna lapurtzen zituzten. Hirugarren aldian, sua eman zioten Gazteteare. Gerra ziki-

"Ordizian, 150 gazte biltzera iritsi ginen Santa Anan, lokalak eskatzeko. Mediku etxea libratu zenean, zirikatu egin genuen Udala eta emanaraztea lortu genuen".

na izan zen. Bi heroinazalek, Ertzaintzaren konplizitatez erre zuten. Izugarriko manifestazioa izan zen hura salatzeko”.

Garmendiak, garai hartan, heroinak egin zuen kaltea gogora ekarri nahi izan du: “Ordizian, Euskal Herri osoan bezala, toki guztietan zegoen heroina, baita bi batzokitan ere. Baina Gaztetxean ere. Drogomenpekotasunaren aurkako jarrera garbi bakarra Gaztetxean zegoen. Droga mota asko dago baina heroinak min handia egin zuen. Heroina erraz lortzen zen, gazteen sartzea interesatzen zen gainera. Gaztedia suntsitu zuen. Ehunka hildako izan ziren Euskal Herrian”.

Belaunaldi berriak

Pixkanaka-pixkanaka belau-naldi berriak sartu izan dira Gaztetxean. Eneko Gonzalezek gogoan du nola hasi ziren Gaztetxera hurbiltzen. “Mugimendu handia zegoen. Gaztetxeak ateak irekitzen zituen herritarren partehartzea bultzatzeko. Gu ere etortzen hasi ginen. Oso ondo zegoen. 15-17 bat urterekin hasiko ginen etortzen. 15-16 urte nituenean, Autobidearen aurkako mugimendua zegoen”.

Gazteagoak dira Urko Ruiz Apodaka, Aitor Gartzia, Uxue Urzelai eta Jon Arizmendi. Askotan ez da erraza izaten belaualdien jarraipena ziurtatzea baina Ordizian, Gaztetxean behintzat, lortu dute. “Ez da batere erraza belaualdi aldaketa hori gauzatzea. Hori da zailena, beharbada. Eta nik uste dut, geroz eta zailagoa ere badela”, dio Urzelaiak. “Herri txikietan beharbada hori zailagoa izaten da”, gaineratu du Gonzalezek.

Erabili, parte hartu eta egin

25 urte ez dira alperrik pasa eta Gaztetxearen dinamika ere aldatu da, gizarte aldatu den bezala. “Gaztetxearen helburuak ez dira aldatu baina, moduak eta abiadura bai”, azaldu du Gonzalezek. Uxue Urzelai urteurrenaren

inguruko bideo bat egiten ari da eta belaualdi zaharragoen ikuspegia gertutik ezagutzeko aukera izan du, eta ondorio hauxe ateratu du: “Batek esaten zigun, hasierako urteak, frankismoaren ondorengo urteak zirela, egoera sozial eta politikoa ezberdina zela... horri

guztiari buelta emateko indarra jarri zutela. Puskatzera joan ziren. Nik uste dut gaur egun interesatzen garela gehiago, jendea mugitzera. Interesatzen zaigunaren inguruko eta gertatzen diren gauzatxoengatik inguruko hitzaldiak... egiten ditugu. Egoera

politikoaren inguruko gauzen berri ematea... Ekintza bakoitza helburu batekin antolatzen dugu. Ezberdintasuna, nik uste dut egon dela. Eta beste ezberdintasun bat ere bai: lehen, talde pilo bat elkartzen zela Gaztetxean esan da. Gaur



“Herriko dinamika hobetzen lagundu du Gaztetxeak”

Garmendia, Gonzalez, Gartzia, Ruiz de Apodaka, Urzelai eta Arizmendi gustura eta harro daude Ordiziako Gaztetxearen parte izan direlako eta direlako. Pertsona bezala, aberastu egin direla diote. Urterik onentsuenak Gaztetxean pasatutakoak direla dionik ere bada. “Gaztetxeak, jendea ezagutzeko aukera ematen du. Koadrila ezberdinak nahasteko ere bai, bestela, koadrilak nahastea zaila da. Arazoak daudenean, konponbidea bilatzen saiatu behar zara. Antolakuntzako gaitasun minimo batzuk ere lantzen dira. Hezitzailea da”, dio Urzelaiak.

Gaztetxeak norberari eman dionaz gain, herriari eman diona ere azpimarratzen dute. “Herrian zegoen dinamika hobetzen lagundu du, kontzientzia zabaltzen edo erreibindikazioak zabaltzen. Aldarrikapen aurrerakoiak ere egin izan dira. Bidegorriez eta berziklatzeaz hitz egiten genuen orain 25 urte ere... Ekologia adibidez, lehen kalean zegoen, eta ez udaletxean, orain bezala. Orain denak gara ekologistak. Euskararen arloan ere, ‘Irakurri Euskal Prentsa’ kanpainarekin bat egiten genuen Argiarekin, Goierritarrarekin eta Egunkariarekin. Ilusio handiarekin bizi izan zen genuen euskal prentsaren sorrera. Asteburuetan, Gaztetxean zabaltzen genuen euskal prentsa. Gaztetxeak, zegoenari eta dagoenari laguntzen dio. Beste gizarte eredu bat lortzea posible dela uste dugu, solidarioagoa, injustiziak salatuko dituen, denontzat berdina eta geurea izango dena”.

‘Herri bat, Gaztetxe bat’ lema ere defenditu dute: “Herri batek Kultur Etxea eta Jubilatuen Etxea edukitzea garrantzitsuak dira, baina etorkizuna gaztedia da eta garrantzitsua da Gaztetxea da. Zortea daukate gure seme-alabek, herrian Gaztetxea edukita”

Sarritan gurasoek ez dute oso gogoko beraien seme-alabak Gaztetxera joatea, fama txarra eman izan baitzaio askotan. Gaur egun dena den, fama hori hobetu dela diote. “Nik uste dut, normalizatuagoa dagoela, beste lokal gehiago bezala da. Normaltasun osoz. Guraso batzuk beti eduki dituzte aurreiritziak, baina hori ezjakintasunagatik da”, dio Gonzalezek. “Ezjakintasunagatik da, ez dakitelako, benetan zertan eta nola ibiltzen garen”, gaineratu du Urzelaiak.

egun gabezia hori nabaritzen dugu. Momentu edo ekintza puntual batzuetan bai, baina bestela talde aktibo bezala ez dute funtzionatzen. Eta hori bultzatu nahi dugu, talde ezberdinen arteko harremana". "Dinamika sozial pixka bat falta da. Lehen taldeek, erabili egiten zuten lokala eta harreman asko sortzen zen", gaineratu du Garmendiak. Hori bai, onartzen du, gizartea aldatu egin dela. Talde batzuk desagertu ere egin dira. "Adibidez, ekologiak eta internazionalismoa, ofizialak dira. Intsumisioa desagertu da... Azpiegitura ona dago Gaztetxean ere hori erabili egin behar da".

Garmendiak datu bat eman du garai batean Gaztetxean zegoen dinamika argitzeko: "Bost urtean, Udaletxeko Gaztedia batzordea Gaztetxean bildu zen, astero. Euskadiko Ezkerra, Herri Batasuna, Balatakaklin eta Gaztetxea biltzen ziren. Gaztediari buruzko ikerketak egin ziren. Gazte Bulegoa sortu zen eta Zerraila sexualitate bulegoaren proiektua ere egin zen. Urtero, Balataklakinek eta Gaztetxeak dirua jasotzen guenen ekin-tzak egiteko".

Adina

Hala ere, guztiak ados daude, Gaztetxearen dinamika, Gaztetxean dabilzanek adinak ere baldintzatzen duela esatean. "Ez da berdina 15 urte edukitzea eta 25 urte edukitzea. Adinaren arabera dabil mugimendua. 22-23 urtekoek uzten dutenean, nabaritzen da, galdu egiten du zer bait. 15-16 urtekoek, jaso egiten dute Gozatu, garbitu eta erabili. Hori oso inportantea da. Baina gero,



egin egin behar da". Gai horren haritik, Urzelaik uste du, "16 urteko batek duen kontzepzioa eta 26koak daukana, ezberdina da. Ez Gaztetxean bakarrik, denean da berdina. Adinak markatzen du lana egiteko modua". Beste gogoeta bat ere egin du Gonzalezek: "lehen 30 urtera arte Gaztetxean ibiltzea normala zen. Orain ematen du, 28 urterekin ezin dela ibili. Hori grabea da. 24-28 urterekin, oraindik, Gaztetxean ibili behar da".

Ostiraletan asanblada

Belaunaldiz belaunaldi, lan egiteko modua aldatu izan arren, asteroko hitzorduari tinko eutsi diote. "Gu sartu ginenean, kartela zegoen jarrita: asanblada, ostiraletan, 19:00etan zela esanez. 24 urtean horrela izan zen, gazteenak sartu zirenean, 18:00etara pasatu genuelako", dio Urzelaik. Gazteenak, Jon Arimendik azaldu digu horren zergatia: "Jende asko, bilera hasten zen momentuan, joan

egiten zen eta erabaki genuen, ordubete aurreratu eta jende guztia harrapatzea".

Ostiraletako asanbladetan hartzen dira erabakiak. Ekonomokoki, Gaztetxean dagoen tabernarekin moldatzen saiatzen dira, gaur egun, udaletik diru gutxi jasotzen baitute. "Aurrekontuak aurkeztu eta miseria erdi bat eman izan digute", dio Urzelaik. Dena den, garai batean, behin baino gehiagotan eskean ibili izan dira eta baita emaitzak lortu ere. Aitor Gartzia gogoratu du pasadizo bat. "Gogoratzen naiz, 11. urteurrenean, Gaztetxea margotu behar zela eta Udaletxeko Aparejadorearekin joan ginela pintura erostera. Bitarteko guztiak Udalak jarri zituen. Txuriz margotu beharra zegoen, baina morea erosi genuen. Beraiek ordaindu zuten pintura. Orain ez da ezer eskatzen udaletxean".

Aldarrikapen ezberdinak

Aldarrikapen ugari egin izan ditu Gaztetxeak 25 urte hauetan: ekologia, internazionalismoa, euskara, intsumisioa, gai politikoak eta sozialak... "Ikastoletako jaietarako joateko zenbat autobus antolatu ditugun!", gogoratu du Garmendiak.

Beste aldarrikapen bat, Ordiziako musika taldeek entsaiatzeko lokalak eskatzea izan zen. Goierriko musika

taldeentzat erreferentzia izan da Ordiziako Gaztetxea. Kontzertu ugari antolatu izan dituzte Gaztetxean eta bertatik egin zitzaion lokalen eskara Udalari. Aldarrikapen horren harira, "orain dela 11 bat urte, Adierazteko Gogoa cd-a atera genuen, rock talde-entzako entsaetzeko lokalak eskatuz Udalari. Talde batzuk elkartu ginen eta mugimendua sortu zen, baina bere horretan gelditu zen udalak ez zeukala interesik", zehaztu du Urko Ruiz de Apodakak. "Garai hartan, Hizkuntza Eskola jarri duten lekuan eskatu genituen lokalak. Hutsik egon da urte askoan. Ludoteka jarri behar zutela eta ez ziguten ematen. Aitzakia zen. Gure musikaren hitzak ez zitzaizkienez gustatzen, ez ziguten ematen. Ordiziako udalak, hemengo taldeak ahaztuta dauzka. Beasaingo lokaletara joan behar dugu entsatzera", gaineratu du Gonzalezek.

Aldarrikapen hori bazter-tuta dute momentuz gaur egun baina musikak garrantzia handia izaten jarraitzen du oraindik ere. "Egia esanda, musika kontzertuek jende asko erakartzen dute gaur egun. Kontzertuek eta musik erakartzen dute jende gehien", dio Urzelaik. "Gu horrela hasi ginen etortzen, jaialdiren batera", zehaztu du Gonzalezek.

"Gaztetxeak, jendea ezagutzeko aukera ematen du. Koadrila ezberdinak nahasteko ere bai, bestela, koadrilak nahastea zaila da."

Goierriko musika taldeen cd-aren aurkezpena

Zilarrezko ezteiak behar bezala ospatzeko, ekitaldi ugari ari da antolatzen Ordiziako Gaztetxea. Era ezberdinetako ekintzak ari dira burutzen. Urko Ruiz de Apodakak kontatu digu ekintza hauen filosofia. "Aitzakia izango da, bertakoak gehiago ezagutzea eta herriari azaltzea, Gaztetxea ez dela beraiek pentsatzen duten bezain txarra. Oso baliagarria izan daiteke, egiten diren aktibitate guztiak herriari azaltzea eta ez gazteari bakarrik. Adibidez, otsailaren 12an, Aspanogi (minbizia daukaten haurren elkarte), elkartearentzat dirua biltzeko eta herritarrak sensibilizatzeko, patata-tortilla lehiaketa izango da. Jendeak ikusi dezala sensibilidade bat badagoela Gaztetxean". "Eta badirela beste gai batzuk ere arduratzen gaituztenak. Apiriletik aurrera, kalean egingo ditugun hitzaldiak eta tailerrak bultzatuko ditugu", gaineratu du Uxue Urzelaik.

Otsailaren 12ko ekintza, arratsaldeko 6,30etan hasiko da, Plaza Nagusian. Ordiziako gastronomia elkartearen patata-tortilla lehiaketarekin. Ondoren, bertan patata-tortillak, salda beroa eta haragi egosi pintxoak egongo dira edariarekin batera salgai.

Otsailak 19, egun handia

Gaztetxeko kideek azaldu dutenez, otsailaren 19a, egun handia izango da. Goierriko 45 musika taldek grabatutako cd-a aurkeztuko baitute. "Polita iruditu zitzagun Goierriko talde ezberdinei aukera ematea. Deialdia egin eta parte hartu nahi izan duten talde guztiak ongi-etorriak izan dira. Ondo atera da. Jendeak modu ezberdinetara parte hartu du: batzuk beraien abestiak grabatuta eraman dituzte; beste batzuk Beasaingo lokaletan grabatu dituzte... Nabarmentzekoa izan da, Laket taldeak, Aitor Sarriegiren hitzekin, Pirritx eta Porrotxekin eta Tolosako Bonbereneakoekin egindako abestia. Urtebeteko lana izan da baina jendeak oso gustura hartu du. 5 eurotan dago salgai cd bikoitza. Aurkezpeneko eguna ere berezia izatea nahi dugu. Taberna ezberdinetan egingo ditugu aurkezpenak. Herrira zabaltzea nahi genuen", azpimarratu dute.

Arratsaldeko 5,30etan hasiko festa, Burrunbazale txarangarekin. Jarraian, taberna ezberdinetan, talde ezberdinen kontzertuak izango dira. 18:00etatik 20:00etara: Herriko tabernan: Pikunk eta Kalamidaz; Urdin tabernan: Silikonay eta Burusoil. 20:00etatik 22:00etara: Tahurren: Kolapso eta Having a Laugh; Kirkilen: The Last Strength eta Herri Guda; eta Sugaar tabernan: Milkshake eta Other Side. 22:00etan, Gaztetxean, Laket eta Gargantas Desgarradas taldeak izango dira.



Milshake



Pikunk



Silikonay



Bat-egite etorkinen elkarteak, Beasaingo Kale Nagusian du bulegoa:

Elkarbizi, ezagutu, ulertu eta lagundu

Etorkinei laguntzeko modurik onena, beraiekin elkarbizitzea eta beraien arazoak euren ahotik jasotzea dela eta, Bat-egite elkarteak lanean ari da. Kanpotik etorri direnen eta bertakoen topalekua da. Momentuz, 18 herrialdetako 42 lagunek egin dute bat Bat-egite elkartean. Bulegoa ere badu Beasainen. Bat-egite elkarteko kide diren Pedro Urretabizkaia beasaindarrak eta Serigne Ndiaye senegaldarrak eman digute elkartearen asmoen berri.

Bi helburu nagusi ditu Bat-egite elkarteak: etorkinen integrazioa bultzatzea eta etorkinek bertakoei, beraien herrialdeetako kultura eta ohiturak erakustea. Goierritarrek eta etorkinak elkartzeko bidea ematen du Bat-egitek.

Izan ere, ezjakintasuna eta ezezagutza dagoela uste du Serigne Ndiaye senegaldarrak. “Hemengo jendeak telebistak esaten duena jasotzen du eta askotan telebistak ez du informazio zuzena ematen. Gu garena erakusten saiatu nahi dugu. Leku ezberdinetatik gatoz. Hori hemen berria da, baina ikusi behar da, dibertsitate horren baitan, bakoitzak zerbait eman deza-keela. Beti ere jakinda, etorri den guztia ez dela onena, baina aurkitu dugun dena ere berdin, ez da munduko onena. Biak nahastuz eta elkartuz, ahalik eta ondoen bizi nahi dugu”.

Hesiak apurtuz

Goierritarren eta etorkinen artean egon daitezkeen hesiez gain, beste hesi bat ere hautsi nahi du Bat-egitek: etorkinen artean dagoena. “Hemen dauden etorkinek, bileretan ikusi denez, badaukate arazo bat: euren artean barrera bat dago. Nazionalidade ezberdinen artean hesiak edo barre-
rak daude. Herrialde arabia-
rretakoak, gehienetan, ez dira
besteekin nahasten. Kalean
agurtu ere ez dira egiten. Nik
uste dut lehenengo lana hori
dela, gure artean harremanak
izatea”, dio senegaldarrak.

Ezagutu eta lagundu

Beste helburu bat ere badu Bat-egite elkarteak: etorkina laguntzea. “Hona datorren etorkinak ez dauka ideiarik ere, eta asko lagundu behar zaio. Beraiekin elkarbizi behar da, nola bizi diren eta zein arazo dituzten jakiteko”, azpimarratu du Urretabizkaia. “Norbaiti lagundu nahi badiozu, lehe-
nengo jakin egin beharko
duzu zeintzuk diren bere ara-
zoak”, gaineratu du senegal-
darrak.

18 herrialdetako 42 kide

Munduko 18 herrialde eta kultura ezberdinen bilgune da Bat-egite elkarteak. 42 lagun biltzen dira momentuz elkartean, tartean, 4-5 goierritar. Poliki-poliki, taldea handitzen joan nahi du Bat-egitek. Ondorengo herrialde hauek biltzen dira Bat-egiten: Euskal Herria, Senegal, Sahara, Ecuador, Argentina, Colombia, Maroko, Mali, Polonia, Aljeria, Errumania, Ghana, Nicaragua, Dominicar Errepublikak, Kuba, Boli Kosta, Honduras eta Bolivia.

Kultur aniztasuna

Era horretan, kultur aniztasuna biltzen duen elkarteak izan nahi du Bat-egitek. Kultur ezberdinen topalekua. Pedro Urretabizkaiaaren ustetan, garrantzitsua da kultur aniztasuna, aniztasuna bera, aberastasuna baita. “Elkarte multikulturala izatea nahi da. Badaude elkarte-ak, herrialde bakar batekoak: ekuadortarrak... Baina garrantzitsua iruditzen zaigu multikulturalitate hori. Zergatik? Aberastasun handiagoa delako”.

Irabazi asmorik gabeko elkarteak da Bat-egite eta laguntza eskaintzen duen elkarteak izatea garrantzitsua da beasaindarrarentzat. Izan ere, “etorkinen artean mafiak badaudelako. Etorkinak izaten dira eta etorkinengandik dirua ateratzen dute. Horrekin hautsi nahi dugu. Adibidez, halako paperak egiteagatik x diru kobratzen diete. Etorkinen artean ere badago, etorkinengandik dirua atera nahi dutenak. Lortu nahi duguna da, etorkinek jakin dezatela elkar bat badagoe-
la eurak laguntzeko. Sos
Arrazakeriarekin batera lana
egiten dugu. Etorkinak lagun-
du nahi ditugu”, gaineratu du
Urretabizkaia.

Ndiaye senegaldarrak azpimarratu nahi izan duenez, “jende gaiztoa leku guztietan dago, hemen bezala. Etorkin

batek zerbait egiten badu, etorkin guztiak zaku berean sartzen dituzte. Pertsona bera epaitu beharrean, taldea epai-
tzen dute. Informazio falta
delako batetik, eta bestetik,
norbera bere lekutik ez dela-
ko mugitzen, jakiteko bestea
nolakoa den da. Garrantzitsuena, pertsona
nolakoa den jakitea da eta ez
persona hori nongoa den. Akatsa da hori. Bidaiatu izan
duen jendeak beste ikuspegi
bat badauka. Hemengo jen-
dea itxia da. Saiatuko gara
kalean zerbait egiten eta jen-
dea geurenaga erakartzen,
ikuspegi hori aldatzeko”.

Dena den, etorkinek ere sarritan, ba omen dute horren errua. “Beste herrialde batera zoazenean, pentsatu behar
duzu, zure herriaren enbaxa-
dorea zarela, eta exenplu ona
eman behar du”, gaineratu du

senegaldarrak.

Gure artean, ez omen dute arrazismo arazorik bizi izan Ndiayek jakinarazi due-
nez. “Hala ere, Espainiarekin
alderatuta, beste maila bat
dago, hobeto gaude hemen
etorkinak”, dio. “Euskal
Herrian, jakintza eta kultura
maila, handiagoa da
Espainiako leku batzuekin
alderatuta. Herrialde aberatsa-
goa da Euskal Herria eta arra-
zismo arazo gutxiago dago
alde horretatik. Europan,
Frantzian eta Herbeheretan
emigrazio handia dago baina
ez daukate arazorik, jakintza
eta kultura maila handia dau-
katelako”, gaineratu du
Urretabizkaia.

Irekitzen garen itxiak

Hori bai, harremanetarako irekita egotea garrantzitsua da eta euskaldunok, itxi sama-
rrak garela diote etorkin
gehienek. Hala uste du
Serigne Ndiayek ere, baina,
irekitzen garen itxiak. Beraz,
elkar ezagutzera eta elkarbizi-
tzera gonbidatzen gaitu Bat-
egitek. “Nolakoak diren jaki-
teko, beraiekin harremanak
izan behar dira”, dio beasain-
darrak.

Euskarak ere laguntzen du harremanetarako eta inte-
graziorako. “Ingratzeko eta
lana bilatzeko baliagarria da
euskara”, dio senegaldarrak.
Serigne Ndiayen seme-alabek
badakite euskaraz. “Hemengoak dira”, dio irriba-
rretsu.

Datozen hilabeteetan, Euskara ikastaroa egingo dute AEK-rekin. “12 lagunek eman dute izena. Etorkinek zaila izaten dute astean zehar, lana egiten baitute. Asteburuan libratzen dute. Etorkinentzat bereziki prestatutako ikasta-
roa izango da”, zehaztu du
Urretabizkaia.

Bulegoa, Beasainen

Bat-egiteren etorkinentzako bulegoa, Beasaingo Kale Nagusiko 12. zenbakian, lehe-
nengo pisan dago. Larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara irekiko da bulegoa, edozein zalantza edo infor-
mazio nahi duenarentzat.

“Etorkinekin elkarbizi behar da,
nola bizi diren eta zein arazo
dituzten jakiteko”.

PEDRO URRETABIZKAIA

Topaketak, hiru hilean behin

Euskaldunen eta etorkinen arteko harremanak estutzeko gune izan nahi du Bat-egitek eta horren harira, topaketak egingo dituzte hiru hilabeteen behin. Igandeetan izango da seguruenik. Elkar ezagutzeko, arazoak plazaratzeko eta norberaren eta herrialdeen egoeraz gehiago jakiteko saioak izan nahi dute hiru hilean behingo topaketek. Guztioak daukagu zer ikasia eta zer erakutsia. Adibidez, “musulman erlijioa. Ezjakintasuna dago herrialde arabiarrekiko. Gauza bat da, ohitura arabiarra eta bestea erlijioa. Erlijio musulmanaren aurrekoa da ohitura arabiarra. Ohitura arabiarren praktika batzuk aplikatzen dira. Erlijio musulmana berdina da denean. Bakoitzak bere erara aplikatzen du, baina askok ez du behar bezala erabiltzen. Hemengo jendeak, islama entzundakoan, arabiarrek datozkio burura. Eta ez dira erlijio musulmana ondoen aplikatzen dutenak. Baina hemengo jendeak hori ez daki. Muturreko jarrera guztiak txarrak dira. Integratzeak ez du esan nahi, zeurea baztertu eta bestea hartu behar denik. Zure ona eta bestearen ona uztartzea da gakoa, tarteko zerbaite bilatu behar da”.

Hernaniko esperientzia

Hernanin bada Bat-egiteren antzeko elkarte bat arrakasta handia izaten ari dena. Pixkanaka, horra heldu nahi du Bat-egitek. “Hernanin 200 lagun biltzen dira dagoeneko eta pentsatzen dugu hemen ere gero eta gehiagora joango garela. Hernaniko kasua ondo ezagutzen dut. Udalak, lokala jarri diote, bi teknikari dituzte imigrazioarako... horrela egin behar da. Beraiekin bizi behar da, beraien arazoak ezagutzeko eta laguntzeko”.

Bi hitzaldi

Bat-egitek ekintza ezberdinak egin nahi ditu, pixkanaka zehazten joango direnak. Momentuz, bi hitzaldi dituzte lotuta. Lehenengoa, otsailaren 19an izango da. Sos Arrazakeriakoak etorriko dira Beasaina, emigrazioaren lege berria azaltzera.

Bigarren hitzaldia, martxoan izango da, ikasketen homologazioaz. “Ikasketen homologazioaren gaia, arazo handia da. Etorkin askok ikasketak badituzte baina homologatzen ez zaizkenez, badakigu zein lanetan dabil-tzan”, dio Urretabizkaia. “Ni adibidez, ingeniaria naiz, eta emaztea ekonomis-



“Garrantzitsuena, pertsona nolakoa den jakitea da eta ez pertsona hori nongoa den”.

SERIGNE NDIAYE.

ta. Baina hemen ez ditugu ikasketak homologatuta. Frantzian adibidez bai, ez dago arazorik. Senegalek, Frantziarekin hitzarmena baitu... Baina Espainia ezberdina da, ez dauka hitzarmenik Senegalekin”, azaldu du Serigne Ndiayek.

Zarauzko etorkin talde bateko kide bat etorriko da Beasaina hitzaldia ematera. “Peruar bat arduratzen da hortaz. Beasaina ekarriko dugu, etorkinen laguntzen hasteko. Garrantzitsua da ikasketak homologatzea”.




Beasaingo Lasterkariak elkarrekin korrika

Bealak taldea sortu dute; martxoaren 6an,
14 km-ko lasterketa antolatu dute Beasainen

Korrikarako zaletasunak elkartu ditu Beasaingo Lasterkariak. Pasa den urtearen amaieran sortu zen Bealak taldea eta dagoeneko 40 kidezik gora ditu. Korrika, era ezberdinetara hartu eta bizi duten korrikalariak dira guztiak. Talde giroan, hainbat ekintza egin nahi dute. Hasiera indartsua izango du Bealak taldeak, martxoaren 6rako, Beasaingo Lasterketa herrikoia antolatu baitute.

Beasaingo I. Herri lasterketa

Martxoaren 6a, korrikariak kontuan hartu beharreko eguna izango da, Goierrin, lasterketa bat gehiago izango baitute korrikariak: Beasaingo I. Herri lasterketa. 14 kilometroko ibilbidea egin beharko dute lasterkariak, Beasainen barrena. Goizeko 10,30etan, Loinazko San Martin plazatik abiatuko da lasterketa. Haurrentzat ere lasterketa izango da 9:45ean. Argazkian ikus daiteke ibilbidea. Izena ematea www.bealak.com webgunean egin daiteke, martxoaren 4a baino.



Bealak taldean elkartu dira, Beasaingo 40 Lasterkari baino gehiago. Korrika egitea gustatzen zaienak elkartzea da taldearen asmoa, bakarrik aritu beharrean, taldean aritzeko. Helburu horren haritik, kirola sustatzea; Beasain eta inguruan korrika egiten dutenak elkartu eta talde giroa sortzea; talde entrenamenduak egitea; urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzea; eta martxoan lasterketa bat antolatzea dira Bealek-en helburuak.

Aitor Larburu eta Koldo Agirre Bealak-eko kideak dira eta beraiek azaldu dizkigute talde sortu berriaren xehetasunak.

Zer bultzatu zaituzte Beasaingo Lasterkariak taldea sortzea?

Aitor Larburu: Beasainen hutsunea ikusten genuen. Izan ere, hainbeste jende kalean korrika ikusten zen, baina ez zegoen inongo talderik edo antolakuntzarik. Bakoitza bere aldetik ibili beharrean, elkartu nahi izan dugu, entrenamenduak elkarrekin egiteko, zalantzak azaltzeko... Eta gehienbat, jendeak korrika egitera kalera ateratzeko izan dezakeen alperkeria edo lotsa hori kentzen laguntzeko. Askotan, bakarrik arituz gero, alferkeriagatik, joan gabe ere gelditzen gara, eta errazagoa da gure artean gelditu eta korrika egitea. Askotan laneatik atera eta bakarrik joateak pereza sortzen du, geldituta egonez gero, errazagoa da. Hotza egiten duela, euria ari duela... askotan ez zara joaten baina jendearekin geldituta egonez gero, joan egiten zara. Gure artean babesa ematea garrantzitsua da.

Taldean parte hartzeko baldintzarik ba al dago?

Koldo Agirre: Ez. Batzuk federatu egingo dira beharbada, eta beste batzuek, karreretan ez dute parte hartuko, beste batzuk herrian bakarrik hartuko du parte, beste batzuk asteen behin korritu nahi dutenak izango dira... Talde irekia da. Gero talde txoak sortuko dira, helburuen arabera, baina irekia da denontzat.

Guk korrika herrikoia bultzatu nahi dugu. Ez dugu lehiakor-tasunik bultzatu nahi. Beasaingo eta inguruko jendea elkartu eta korrika egin nahi dugu, gustatzen zaiguna egin nahi dugu.

Denok berdinak gara eta korrika egitea gustatu zaigu.

Larburu: Neska asko kiroldegian ibiltzen da, baina kalean ez da ibiltzen. Denak animatu nahi ditugu. Lotsak eta aurreritziak alboratu eta taldean parte hartzea gonbidatu nahi dugu jendea. Denok bilatuko dugu, erritmo berdineran doan lagun bat. Dagoeneko 11 neska badira taldean.

Aitzakiarik ez dago beraz.

Agirre: Talde giroan ibili nahi dugu. Ekintza ezberdinak egiteko asmoa ere badaukagu. Momentu honetan, martxoaren 6ko lasterketarekin ari gara buru-belarri. Baina hitzaldiak egin nahi ditugu, helduekin eta haurrekin...

Larburu: Momentuz taldea sortzen ari gara. Arropa eta lasterketarekin lan asko daukagu eta gerora helduko diegu ekintza berriei. Hitzaldiak eman nahi ditugu. Adibidez, jendeak korrika egin nahi du baina ez daki korrika egiten. Horretan ere ikasi egin behar da. Dietak direla, entrenamenduak direla...

Indartsu hasi zarete, lasterketa antolatuz.

Agirre: Aspaldi geneukan buruan lasterketa herrikoia antolatzea, Beasainen, San Silbestrea izan ezik, ez delako beste lasterketarik egiten. Datak begiratzen hasi eta martxoaren 6a, data egokia izan zitekeela ikusi genuen.

Larburu: Elkartu garenak ere gogoarekin hasi gara.

Azaldu iezaiguzue ibilbidea zein izango den.

Agirre: 14 km-ko ibilbidea izango da. Beasainen, herrian bertan izango da. Ordizia zati bat harrapatuko du. Loinazko San Martin plazatik abiatu, kiroldegiraino joan, bueltan, Urbietaraino eta handik Ordiziara, Armeria parean buelta hartu eta plazara. Bi itzuli egin beharko dira.

Makina bat korrikalarik entrenatzeko egiten duten ibilbidea da.

Agirre: Bai, egunero ibiltzen garen lekua da.

Data egokia al da, ala besterik ez zegoelako aukeratu duzue?

Larburu: Data ona da bai. Martxoaren 26an Azpeitia-Azkoitia maratoi erdia izango da eta entrenamendu on bat bezala, 13-15

“Beasainen jende asko kalean
korrika ikusten da,
baina orain arte ez zegoen
inongo talderik edo
antolakuntzarik”.



kilometroko karrera bat ikusten genuen egokia, bi-hiru aste lehenago egiteko. Oso ondo dago, bakoitza zein formatan dagoen ikusteko.

Agirre: Festa egun bat izatea nahi dugu. Hona korrika egitera datorren jendea gustura joatea nahi dugu. Horretarako, herriko dendek opari asko eman dizkigute eta bukaeran hamaiketako ere egongo da. Festa bat egin nahi dugu. Batik bat, gu kanpora joaten garenean eskertzen ditugun gauzak egiten saiatuko gara. Lerro hauetatik, eskertu nahi dugu, herriko merkatariek eman diguten laguntza eta ongi-etorria.

Haurrek ere izango dute euren lasterketa.

Larburu: 9:45ean izango dira benjamin eta alebin mailako lasterketak.

Beasaingo Lasterkariak nola ezagutuko ditugu?

Agirre: Ekipazioarekin ari gara une honetan. Urdin kolorekoa izango da.

Larburu: Elkar ezagutzeko balioko du kamisetak.

www.bealak.com

Beasaingo Lasterkarien topaleku izan nahi du www.bealak.com webguneak. Taldeari buruzko informazioak, ekin-tzak, foroak... gune bizia, eguneratua, izan nahi du www.bealak.com guneak. Taldeko kide nahi izanez gero ere, bertan dago aukera izena emateko.

Babesleak

Taldeak babesleak bilatzen saiatzen dira eta beasaindarrek aurkitu dituzte dagoeneko lau: Errotaundi okindegia, Sasoiari Prestakutza fisikoa, lasterketak.com eta Beasaingo Udala.

Bilera

Azkenik, Koldo Agirrek eta Aitor Larburuk jakinarazi dute-nez, otsailaren 17an, Udaletxeko Batzar aretoan bilera izango da, iluntzeko 7etan, elkar ezagutzeko eta bakoitzak dituen interesak ezagutzeko.

Arraiak parrilan
 ☎ 943 65 21 76
ABALTZISKETA
ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Olagi Urte guztian zabalik
 Eguneroko menua
 Karta
 Sagardotegiko menua
Sagardotegia
Jatetxea
 ☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA
 A. Almeida
 620 32 62 92
 943 18 03 72
 aiakoerrota@terra.es
 ATAUN

EGUZKI
BELARDENDA
 X Dietista
 X Naturopata
 X Iriologoa
Kale Nagusia, 18
IDIAZABAL

Idiazabal

Idiazabalgo argazki zaharrak

Otsailaren 23an, iluntzeko 7etan, aurkeztuko da, Idiazabalgo argazki zaharren liburua, Udaletxeko areto nagusian.

Keramika ikastaroa, helduentzat

Martxoan, 30 orduko iraupena izango duen keramika ikastaroa izango da, helduentzat. Tornua erabiltzen ikasteko aukera izango da. Martxoaren 3an hasiko da ikastaroa eta otsailaren 14tik 25era bitartean eman behar da izena, udaletxean. 25 euroko kuota ordaindu beharko da.

Beasain

Goieniz zine kluba

Otsailak 17, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Louis-Michel' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian.

Otsailak 24, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Contracorriente' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian.

Neguko mendizaletasun hastapen ikastaroa

Arrastaka Mendi Taldeak, otsailaren 19 eta 20rako neguko mendizaletasun praktikak antolatu ditu Gabarditoko (Echo-Huesca bailara) aterpetxean. Larunbatean neguko mendizaletasun hastapen ikastaroa burutuko da, eta igandean Bisaurin (2.669m.) mendi tontorrera igo. Ikastaroan parte hartzeko interesatuta daudenak, Iturrioz kaleko (Urbietan Etxea parean) Ehunmilak-Arrastaka lokalean egingo den bilerara azaldu beharko dira, otsailaren 15ean, asteartean, arratsaldeko 7,30etan. Oharra: Irteera honetan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Ordizia

Argi-Berri mus txapelketa

Otsailaren 12an, arratsaldeko 4,30etan hasita, Ordiziako Argi-Berri elkarteak antolatutako XXXIV. Mus txapelketa azkarra jokatu da. 4 erregetara eta 6 hamarreko 3 ustele- ra jokatu da. Bikoteko, 40na euro ordaindu beharko dira.

11 sari izango dira: bikote irabazlearentzat, 1.500 euro eta txapelak; 2.arentzat, 800 euro; 3.arentzat 400 euro; 4.enarentzat 200 euro; 5. eta 6.narentzat arkume bana eta bina txuleta (Xixio Mujika, Siglo XX eta Aliproxek emanak); 7. eta 8.arentzat launa afari Oteñe erretegiaren eta Begiristain sagardotegiaren. Herriko lehenengo bikotearentzat bi txuleta emango ditu losu harategiak. Elkarteko lehen bikotearentzat, bi txuleta eta 2 botila ardo emango ditu Orlegi tabernak eta azkenik, lehenengo emakume bikotearentzat, lurrindegiko lote bat emango du Biñaspre lurrindegia.

Errugbi zaleen bazkaria

Martxoaren 6an, Ordiziako Beti Alai pilotalekuan, 500 lagunentzako herri bazkaria antolatu dute Ordiziako Rugby talde- ko zaleek. Egun horretan, Ordizia eta La Vila taldeek jokatu- ko duten ligako azken partidarekin batera, zaleek bazkaria eta festa antolatu dute frontoian. "Klubak bizi duen epealdi oparoa eta senior taldea estatuko goren mailan egiten ari den lana goretsi eta ospatu" nahi dute zaleek. Bazkarirako txar- telak Ordiziako Pottoka, Amonane, Olano eta Ilunpe taberne- tan izango dira salgai otsailaren 1etik aurrera. Helduentzako salneurria 15 eurokoa izango da eta haurrentzat (14 urtez beherakoak) 8 eurokoa. 500 sarrera besterik ez dira jarriko salgai, beraz, bazkarira joan nahi duenak txartela ahalik eta lasterren har dezala gomendatzen da.


ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Beasain Ordizia

Antzerki garaia

Otsailak 11, ostirala:

22:15ean: Herri Antzokian, Antzerki garaia programa: Txalo produkzioak 'Baginaren bakarriketak'. Aktoreak: Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai.

Otsailak 25, ostirala:

22:15ean: Antzerki garaia: 'Errautsak', Usurbe Antzokian.

Beasain

Bertso afaria Arrano Elkarte, Jon Maia eta Amets Arzallusekin

Otsailaren 12an, gaueko 9etan hasita, bertso afaria izango da Beasaingo Arrano elkarte. Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariak izango dira gonbidatua. Afarirako txartelak, 17 euroan daude salgai, Arrano tabernan.

Lazkao

Oihalezko pardelen erabilpena

Irriargi elkarteak antolatuta, otsailaren 12an, goizeko 10:30etan, Lazkaoko Erakusketa gelan, haurren oihalezko pardelen erabilpenari buruzko hitzaldi-tailerra izango da. Alazne Soto izango da hizlaria. Irriargi elkarteak emandako datuen arabera, zelulosa pardel bat desegiteko 200-500 urte behar dira eta haur batek 4.500-6.000 pardel inguru erabiltzen ditu. Era horretan, oihalezko pardelak berrerabilgarriak eta ekonomikoak direla diote, haurrentzako erasoak eta erabiltzeko errazak. Izen-ematea, www.irriargi.com webgunean egin daiteke.

Beasain

Otsaileko ekintzak

Otsailak 12, larunbata:

16:30ean: XX. Aurreku eta Soinu zahar txapelketak, Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea.

Otsailak 13, igandea:

11:00etan: XX. Aurreku eta Soinu zahar txapelketak, Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea

Otsailak 19, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: 'Ipuinaren bila', Usurbe Antzokian.

Erakusketa

Otsailaren 18tik 27ra, Ongizate sailak antolatuta lankidetzari buruzko erakusketa izango da ikusgai, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Gazteentzako egitaraua, Ezkiagan

'Asteburu gaztea!' antolatu dute Ezkiaga auzoko auzotarrek, otsailaren 18tik 20ra. Ondorengo egitaraua prestatu dute:

Otsailak 18, ostirala:

Umeen pilota partidak eta 17:30ean, buruhandiak.

Otsailak 19, larunbata:

16:00etan, aisialdi erraldoia (jokoak, musika, dantza); 18:00etan, txokolate jana; eta 19:00etan, bertsolari eta trikitilari gazteak.

Otsailak 20, igandea:

10:30ean, krosa; 13:00etan, 'Izan Izar' abesbatza. Karaokea eta antzerkia ere izango dira, baina oraindik ordu-tegiak zehaztu gabe daude.

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 ATAUN

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA
INFORMATIKA - MEKANOGRFIA
IKASKETA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120
685 722 403 - 675 006 462
ikaskide@ikaskide.net

KE LANAK

Tximini garbiketak

652 920 848

www.kelanak.com

Lazkao

Joko kooperatiboen tailerra

Lazkaoko ludotekak, otsailaren 11rako, Joko kooperatiboen tailerra antolatu du, 4-12 urte bitarteko haur eta bere gurasoei zuzendua. Tailer honen helburuak, batez ere, lankidetzajolasek eskaintzen dituzten baloreak gurasoei eta hezitzaileei jakinaraztea eta bestetik lankidetzajolasek familiaren eremuan tolerantzia-esperientzia bat bizitzea dira. Jolas fisikoak zein mahai jolasak erakutsi eta hauekin jolasteko aukera egongo da. "Tailer honetan zuen haurrekin batera parte hartzera animatzen zaituztegu, benetan joko interesgarriak, berriak eta dinamikoak ezagutuko dituzue, gero etxean zein kalean zuek jolastu ahal izango dituzuenak", diote Ludotekakoek.

Ikastaroa, arratsaldeko 5etan hasiko da ludotekan eta bi ordu eta erdiko iraupena izango du. Izena, otsailak 9 baino lehen eman behar da. Tailerra doan da. Plaza mugatuak daude. Dena den, eskaera gehiago daudela ikusten bada, aurrerago berriro eskainiko da tailerra.

Ormaiztegi

Familiantzako tailerrak

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak, larunbatero, familiantzako tailerrak antolatzen jarraitzen du. Datozen bi ikastarotz, honokoak izango dira: otsailaren 12an, 'Berunezko soldadutxoak'; eta otsailaren 19an, 'eskulan berziklatuak: armak'. Ikastaroak, 17:30etik 19:00etara izaten dira, dohainik. Izena emateko bideak: 943 88 99 00 telefono zenbakia; www.zumalakarregimuseoa.net webgunea eta mzumalakarregi@gipuzkoa.net posta elektronikoa.

Zaldibia

Gose-ren kontzertua

Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuta, Gose musika taldearen kontzertua izango da Herri Antzokian, gaueko 10etan hasita.

Goierri

Korrika 17 prestatzen

Goiztiri AEK-koak eta goierritarrak ari dira dagoeneko Korrika 17 prestatzen. Herrietan batzordeak sortu dira eta sortzen ari dira. Hainbat herritan lehenengo bilerak egin dira, baina falta direnak ere badira. Otsailaren 15ean, 18:00etan, Ordizian izango da bilera eta 19:30ean, Zaldibian. Otsailaren 16an aldiz, 19:00etan Ormaiztegin eta 20:30ean, Seguran.

Euskalaketa lehiaketa

Korrika 17 girotze aldera, Korrika Kulturalaren barruan, AEK-k edizio honetan, egitasmo berri bat jarriko du martxan: Euskalaketa lehiaketa, euskarazko bakarriketa lehiaketa, alegia. AEK-k eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek elkarlanean sortuko dugun egitasmo berritzailea dugu hau, epe mugatuan eta lehiaketa modura aurkeztuko dena.


Lehiaketaren funtsa «euskalakaririk onena» aukeratzea izango da. Euskalaketa Euskal Herri osoan martxoan zehar jokatu da, eta herrialdekako kanporaketak burutu dira. Final handia Korrika amaierako festan izango da (apirilaren 17an, Donostian), bost kanporaketetako txapeldunen artean (herrialdeko bana, Iparraldean kanporaketa bakarra egingo dela kontuan hartuta).

Parte-hartze libreko lehiaketa izango da. Antzezpen formatua ere librekoa izango da. Kanporaketa bakoitzean, lehiakideek 2 lan burutu beharko dituzte:

- Lehenik, parte-hartzaile bakoitzak, gehienez 8 minutuz, aurretik prestatutako gai libreko bakarriketa aurkeztuko du.
- Ondoren, guztientzako berdina izango den gai bat garatu beharko dute: «euskalakari» hitza. Bakoitzak 5 minutu izango ditu, gehienez, lana aurkezteko.

Kanporaketa bakoitzean, gehienez, 6-7 parte-hartzaile onartuko dira. Horrek herrialderen batean kanporaketa bat baino gehiago egitea ekar lezake.

Izena emateko epea: urtarrilaren 20tik otsailaren 28ra arte, korrika17@gmail.com e-postaren bitartez. Beharrezko datuak: izen-abizenak, parte hartuko dueneko herrialdea, telefonoa eta posta elektronikoa.



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 32. zenbakia 2011ko otsaila



Sahara krosa



Otsailaren 27an Ormaiztegin, elkartasuna helburu duela

Haur eta helduak Sahara kroseko protagonista

Sahararrak herri propiorik gabe bizi dira, Argelian, Tindufeko desertuan bizileku latzean, kanpamenduetan banatuta eta herbesteratuta. Ezinezkoa dute beren herrira bueltatzea. Gainera, arazoa areagotzen ari da egunetik egunera. Hori dela eta guztiz beharrezkoa dute kanpoko laguntza.

Ormaiztegiko herrikideen eta Udalaren ekimen modura, 2006. urtean hasi ziren Sahararen aldeko lasterketa herrikoia antolatzen. Lasterketa honetan aldarrikape-

na, kirola eta dirua biltzea bateratzen dira. Antolatzaileen nahia, egun bakar batez bada ere, jendea saharar herriaz gogoratu araztea da.



Goizeko 11etan hasiko da 10 km-ko lasterketa nagusia. 12:15etik aurrera, berriz, nahi duenak parte hartu dezake kilemetro bateko proban.



Argazkiak: Angel Elorza

10 km lasterketa nagusiak kilometro bat umeenak

Otsailaren 27an, goizeko 11etan hasiko da lasterketa nagusia. Bertan parte hartzen dutenek 10 kilometro egin beharok dituzte korrika.

Hau gehiegi iruditzen zaientzako eta jai giroaz goza ahal izateko lasterketa laburra ere izango da, kilometro batekoa. Lasterketa honetan umeek eta helduek ere parte hartu dezakete eta jai giroan ospatuko da eguerdiko 12,15etan hasita.

Lasterketa antolatzeke beste arrazoi bat dirua biltzea da, eta horretarako guztion laguntza eskatzen dute antolatzailerek. Lasterketarekin biltzen duten diru guttia saharar herriarentzat diru-laguntza bihurtuko da.

Saharar errefuxiatuentzako elikadura laguntza

Saharar herriak 35 urte daramatza basamortuan errefuxiatuta, bizi egoera larrian. Lan izugarria eginez eremu latz hura bizileku bihurtu dute. Tailerrak antolatu zituzten, baratzak, ospitaleak, eskolak... arazoari konponbidea lortu arteko egonaldi luzeari aurre egin ahal izateko.

Nazioarteko laguntzarik gabe ezinezkoa izango zuten aurrera egitea. Horrela, Munduko Elikaduraren Egitasmoari esker eta ONU erakundearen Errefuxiatuentzako Agentziari esker, urte hauetan bermatua izan dute oinarritzko elikadura.

Azken urteotan izan den laguntza eskasa dela eta sarritan izan dituzte elikatzeko arazo

larriak, eta hasita daude desnutrizio arazoak azaltzen. Horri erantzun nahian, Euskal Herriko instituzio eta gizarte osoari laguntza eskatzea beharrezkoa izan da oinarritzko elikadura izan dezaten, larria baita oraingo egoera.


Ikastetxeetan ere laguntza

Lasterketaren bidez, Tindufen errefuxiatuta dauden Sahararrei elikadura beharrak asetzeko oinarritzko laguntza bidaltzen zaie. Horretarako, udaletxe eta enpresetan, elikagaiak eta higie-ne gaiak jasotzen dira. Eta bigarren eskuko kamioiak erosteko asmoa ere bada jasotakoak bertaraino helarazteko. Bilketa horretan umeak eta gaztetxoak inplikatu nahi dira eta beraz bilketa ikastetxeetan ere egingo da.



**Zenbat x
falta dira?**

XX XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXX XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX XXX
XXXXXXXXXX XXXXXX XXXXXXXXXXXXXX
XXXXX XXXXXXXXXXX XXXXXXXX XX XXXX
X XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX XXXXX
XXXXXX XXX XX XXXXXXXX XXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXX XX XXXXXXXXXXXXXXX
XX XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX XXXXXX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXX XX XX XXXXXXXXXXXXXXX X
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Mintzo naiz isilik...

Autorea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Lorena Martinez Oronoz

Argitaletxea: Elkar

Orrialde kopurua: 230

Asmakizun bilduma hau, merkatuan dauden holako bildumen artean txukunenetakoa, gutxienez. Asmakizunak zortzi multzotan bilduta agertzen dira: Janariak, tresnak, animaliak, zerukoak, landareak, gorputzekoak, jantziak eta bereziak. Liburuaren amaieran erantzunak datoz. Denera 150 asmakizun inguru dira. Ez errazegiak ez zailegiak, esaterako: Nik papaita zuk papaita; esaten du esan gabe eta bihurtzen da zure jakin-minaren jabe. Zer da?

Kontu zaharrak

Autorea: Joxe Arratibel

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Argitaletxea: Erein

Orrialde kopurua: 198


Ataungo fraide ezagunaren ipuin bilduma honek 30 urte bete ditu amaitu zaigun 2010ean eta oraindik orain arrakastaz berrargitaratzen den liburua da. Izan ere, Goierriko herri literaturak sortu duen harri bitxi hau etxe guztietan derrigorrez erabili beharko genuke. Biltzen dituen hogeita bi ipuinak egokiak dira lauzpabost urtetik gorako haur eta helduontzat, istorio harrigarri eta aldi berean oso etxe-koak, denak ere nekazari munduari lotuak.

7 aldeak



Zenbatu ttanttoak

Ondoko bederatzi dadoen
gainkaldean zenbat ttantto
beltz daude?





Ormaiztegi antzerki taldea 1929. urtean

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Eulogia Otegi, Maria Azurmendi, Maria Luisa Intxausti, Sabino Azurmendi, Juan Mari Intxausti eta Alberto Irizar Salazar.

Erdiko ilaran: Mercedes Irizar Salazar, Frantzisko Etxeberria (Ezkioko Santa Luzi auzoko apaiza), Serafin Esnaola eta Maria Leturia.

Lurrean eserita: Joxe Turrillas.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Urraki
Bidaietan adituak

Otsailean %5eko deskontua
Japon, Txina, Nepal, Turkia, Italia, Suiza
2011an bidaiatzeko

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



BEASAIN

Garmendia Otaola, 2-behea

Pediatria, Ginekologia, Dermatologia
Traumatologia, Dietetika eta nutrizioa

111

www.consultoriomedicobeasain.com

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza tekniko // laguntzen bideratzea



PLAZAPE TABERNA

Beasaingo plazan bertan
taberna berria
zentzumenen gozamenerako

Tel.: 943 882 997

